



EMEKIN, EGITURA-FUNTSETAN GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNAREN PRAKTIKA EGOKIA

Otsailaren 17an eta 18an Egitura-Funtsetan eta Kohesio Funtsean Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Politiken Sarearen hirugarren bilkura egin zen Bilbon. Bertan, Berdintasun erakundeetako eta Egitura-funtsen administrazio eta kudeaketako, Autonomia Erkidegoetako, Estatuko Administrazio Orokorreko eta Europako Batzordeko, nola Foru Aldundietako ordezkariak parte hartu zuten.

2009 urtean eratu zenetik, Emakumearen Institutuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak sustatutako Egitura-funtsetan eta Kohesio Funtsean Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Politika Sarea erkidegoaren esku-hartzeetan genero ikuspegia barneratzeko koordinazio, analisi eta lankidetzaren organo gisa finkatu da.

Bilkura hartan, **EMEKIN proiektua** praktika egoki gisa aurkeztu zen, Euskadin Egitura-funtsetan aukera berdintasuna barneratzeari dagokionean: **enpresak sortzeko orduan genero ikuspegia kontuan hartzeko Gipuzkoak hartutako konpromisoa**. Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak garatutako proiektu hau Europako Gizarte-Funtsarekin batera finantzatu da.



EMEKINen aurkezpena Gizon eta Emakumeen Arteko Berdintasun Politiken Sarearen hirugarren bilkuran

[http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/documentos/EMEKIN-FSE%20AURKEZPEN%A20\(2011-02-18\).pdf](http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/documentos/EMEKIN-FSE%20AURKEZPEN%A20(2011-02-18).pdf)

EMEKIN buruzko informazio gehiago:

<http://www.emekin.net/web/default.asp?idioma=eu>